# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia — Iruñean, 1997ko otsailaren 27a — 13 ZK.


## A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**


—DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen partzuergoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Gobernuko eta haren Erakunde Autonomoetako plantilan betegabe dauden lanpostuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Ega ibaia garbitzeko lanen esleipenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Zenbait ikastetxe itunduk "dirulaguntzetarako laguntza" kontzeptupean gurasoei eskatzen dizkieten diruekarpenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—"Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei" emaniko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Aldi baterako lanerako enpresak arautzen dituzten ekainaren 1eko 14/1994 Legeari eta urtarrilaren 3ko 4/1995 Errege Dekretuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Administrazioko plantila finkoko langileak ez direnek betetzen dituzten zenbait Burutzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleria ohartarazteko neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

—Nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzen buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

—"Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

—"Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—"Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

—“N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—Elikagaietarako ez diren laboreei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:
**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**
—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Gainditu dutenen zerrenda (27. or.).

**F Saila:**
**GALDERAK**

# DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen partzuergoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen partzuergoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Carlos Cristóbal García Foru Parlamentariak DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen partzuergoei buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Hauexek dira partzuergo moduan DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak:

Atarrabia/Burlatako La Presentación-Notre Dame: azaroaren 15eko 465/96 F.A.

Burlatako Amor de Dios-Regina Pacis: azaroaren 15eko 459/96 F.A.

Iruñeko Sta. Catalina-Santísimo Sacramento: abenduaren 12ko 497/96 F.A.

Iruñeko Santo Angel-Vedruna: abenduaren 12ko 498/96 F.A.

Uharteko Miravalles-El Redín: abenduaren 12ko 496/96 F.A.

Lizarrako Mater Dei-Puy-Anderaz: irailaren 17ko 366/96 F.A.

Altsasuko Sakana Ikastola: azaroaren 15eko 458/96 F.A.

Ikastetxeek arauak ezartzen dituen ezaugarriak badituzte. Euren deskribapena baimena emateko espedientean daude denon eskuragarri, eta, laburtu beharrez, bertara jo beharko du horren gaineko xehetasunik jakin nahi duena; haatik inork eskatuz gero eman egingo genioke.

2.- Partzuergo moduan itundutako geletako ikasleen kopuruari, partxuergo bakoitzeko zuzendaritza taldeari eta irakasleen organigramari dagokienez, ikastetxe bakoitzaren antolamendua honako hau da:

A.- “LA PRESENTACION”-”NOTRE DAME” PARTZUERGOA

1.- Ikasleak

| Lehena | Bigarrena | Hirugarrena | Guztira |
|---|---|---|---|
| 79 (3) | 66 (2) | 77 (3) | 222 (8) |

( ) Dauden taldeak adierazten ditu

2.- Ikasleen kokagunea

Ikasleek eta taldeek ikastetxeetan duten kokagunea hauxe da:

| | 1 | 2 | 3 | Guzt. |
|---|---|---|---|---|
| La Presentación eraikina | 57 | 34 | 44 | 135 |
| (Taldeak) | (2) | (1) | (2) | (5) |
| Notre Dame eraikina | 22 | 32 | 33 | 87 |
| (Taldeak) | (1) | (1) | (1) | (3) |

3.- Irakasleak

| 1 A | 2 A | 3 A |
|---|---|---|
| Roncesvalles Echeverri | Roncesvalles Echeverri | Roncesvalles Echeverri |
| Luis Madoz | Luis Madoz | Pilar Labiano |
| Iñigo Casolí | Iñigo Casolí | Iñigo Casolí |
| Silvia Santiago | Silvia Santiago | Raquel López |
| Socorro Pérez | Socorro Pérez | Socorro Pérez |
| Vicente Tanco | Vicente Tanco | Mª José Rodríguez |
| Eugenio Torrano | Eugenio Torrano | Eugenio Torrano |
| Olga Sanz | Mª Jesús Canovas | Juana María Gutiérrez |
| Mª Gracia Morte | Juana Mª Gutiérrez | Mª Gracia Morte |

| 1 B | 2 B | 3 B |
|---|---|---|
| Roncesvalles Echeverri | Eugenio Torrano | Mª José Rodríguez |
| Luis Madoz | Laura Rodríguez | Mª Gracia Monte |
| Iñigo Casolí | Rosario Pérez | Iñigo Casolí |
| Silvia Santiago | Blanca Esther Janáriz | Eugenio Torrano |
| Socorro Pérez | Mª Carmen Arozarena | Raque López |
| Vicente Tanco | Mª Angeles Vilella | Pilar Larumbe |
| Eugenio Torrano | Natalia García | Juana Mª Gutiérrez |
| Olga Sanz | | Elena Noain |
| Mª Gracia Morte | | Idoia Ezquer |
| Juana Mª Gutiérrez | | |

| 1 C | 3 C |
|---|---|
| Eugenio Torrano | Eugenio Torrano |
| Laura Rodríguez | Mª Gracia García |
| Rosario Pérez | Raquel López |
| Blanca Esther Janáriz | Blanca E. Janáriz |
| Mª Carmen Arozarena | Mª Carmen Arozarena |
| Mª Angeles Vilella | Mª José Rodríguez |
| Natalia García | Natalia García |
| | Mª Jesús Cánovas |

4.- Zuzendaritza taldea

Zuzendaria: Juana Mª Gutiérrez

Azpizuzendaria: Laura Rodríguez

Ikasketaburua: Zuzendaria

Idazkaria: Angeles Rubio

Administratzailea: Mª Carmen Arozarena Arozarena

Bi kide

B.- "Sta. catalina- Stmo. Sacramento" patzuergoa

1.- Ikasleak:

| | 1goa | 2garrena | 3garrena |
|---|---|---|---|
| Edificio Sta. Catalina | 32 | 55 | 54 |
| Edificio Stmo. Sacramento | 26 | 32 | 27 |
| Total | 5 8/2 | 8 7/3 | 8 1/3 |

2.- Zuzendaritza taldea

Zuzendaria: Ana Mª Pérez Moreno

Ikasketaburua: Lucía Postigo Sanz

Idazkaria: Elena Aizcorbe Ayerra

3.- Irakasleak

| 1 A | 1 B |
|---|---|
| Angel Lizarraga | Juan Luis Yániz |
| Carmen Albizu | Mª Elena Aizcorbe |
| Mª Victoria González | Mª Rosario Zubeldía |
| Pura González | Carlos Sanz |
| Ana Pérez | Margarita Santa María |
| Laura Sesma | Alejandra Poza |
| Esther Sanz | |
| Eduardo Ridruejo | |
| Teresa Cía | |

| 2 A | 2 B |
|---|---|
| Laura Sesma | Alejandra Poza |
| José Miguel Gallego | Juan Luis Yániz |
| Angel Lizarraga | Mª Elena Aizcorbe |
| Pilar Maeztu | Mª Rosario Zubeldía |
| José Mª Dios | Margarita Santa María |
| Javier Saenz | Juan Luis Yániz |
| Rosario Salinas | Lucía Postigo |
| Carmen Albizu | Inés García |
| Esther Sanz | |
| Josefina García | |
| Mª Victoria González | |

| 3 A | 3 B |
|---|---|
| Carmen Albizu | Lucía Postigo |
| Eduardo Ridruejo | Mª Elena Aizcorbe |
| Pilar Maeztu | Arantxa Lahera |
| José Mª Dios | Carlos Sanz |
| Rosario Salinas | Carmen Albizu |
| Isabel Caballero | José Miguel Gallego |
| Carmen Lizarraga | Eduardo Ridruejo |
| Carlos Sanz | Inés García |
| José Miguel Gallego | |
| Teresa Cía | |

C.- "Amor de Dios-Regina Pacis"

1.- Ikasleak

165, bi ikastetxeak kontutan hartuta

2.- Ikasleen kokagunea

Eraikinetan ikasle talde bana dago, antolamendu hau duena:

| | 1 | 2 | 3 | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Amor de Dios eraikina | 29 | 29 | 23 | 81 |
| Regina Pacis eraikina | 29 | 33 | 22 | 84 |
| Guztira | 58 | 62 | 45 | 165 |

3.- Irakasleak

| 1 A | 1 B |
|---|---|
| Isaura Gaínza Jiménez | Manuel Horno |
| Mª Angeles Barbarin | Lourdes Crespo |
| Flora García | J. Ignacio Eseverri |
| Manuel Horno | Carmen Ochoa |
| Belén Huarte | J. Ignacio Santos |
| Marcela Gallego | A. Pilar Suarez |
| | Francisca Zamarreño |
| | Iluminada Moisés |
| | Belén Huarte |

| 2 A | 2 B |
|---|---|
| Isaura Gaínza | A. Pilar Suárez |
| Mª Jesús Hidalgo | J. Ignacio Eseverri |
| Mª Angeles Barbarin | Manuel Horno |
| Valeria Vañes | Mª Rosa Iriarte |
| Flora García | Mª Carmen Ochoa |
| Manuel Horno | J. Ignacio Santos |
| | A. Carlos Sorbet |
| | Francisco Zamarreño |
| | Iluminada Moisés |
| | Rosa Sanz |
| | Belén Huarte |

| 3 A | 3 B |
|---|---|
| Marcela Gallego | A. Carlos Sorbet |
| Flora García | J. Ignacio Eseverri |
| Manuel Horno | Rosa Iriarte |
| Isabel Mancebo | Isabel Mancebo |
| A. Carlos Sorbet | A. Pilar Suárez |
| P. Manuel Navarro | Iluminada Moisés |
| Isaura Gaínza | A. Pilar Suárez |
| Belén Huarte | |

4.- Zuzendaritza taldea

Zuzendari eta titularra: Marcela Gallego Díez

Azpizuzendaria: Iluminada Moisés Cumba

Idazkaria: Mª Carmen Ochoa

Administrazioa: 2 kide

D.- "VEDRUNA-SANTO ANGEL" PARTZUERGOA

1.- Ikasleak:

| | 1goa | 2garrena | 3garrena |
|---|---|---|---|
| Santo Angel eraikina | 26 | 25 | 25 |
| | 25 | 26 | 25 |
| Vedruna eraikina | 29 | 31 | 32 |
| | 29 | 29 | 35 |

2.- Zuzendaritza taldearen zerrenda eta irakasleen antolamendua

2.1.- Zuzendaritza taldea:

Zuzendaria: Dña. Mª Dolores Nuin Ochoa

Azpizuzendaria: D. Joaquín Soler Huguet

Idazkaria: Dña. Nerea Apestegui Beriain

2.2.- Irakasleen antolamendua:

**DBHko 1goa**

A taldea

Juan Ramón Peña
Celia Chasco
Javier Moreno
Fermín Milla
Juan Bastida
Pilar Arizpeleta
Isabel De Carlos
Natividad Galán

B taldea

Esther Calvo
Esther Calvo
Manuel
Manuel
Pilar
Celia Chasco
Javier Moreno
Juan Ramón Peña
Isabel De Carlos
Natividad Galán
Nieves

C taldea

Murillo García-Mina, Concepción
Marco Fernández, Ana Carmen
Paternain Asarta, Mª Jesús
Seguín García Ana Mª
De Repáraz López, Mª Blanca
Grafulla Cabau, Miguel
Garnica Cruz, Blanca
Huarte Iráizoz, Aurora
Díaz Martínez, Mª Pilar
Allo Simón, Guadalupe
Iriarte Sotes, Ana Isabel

D taldea

Murillo García-Mina, Concepción
Paternain Asarta, Mª Jesús
Seguín García Ana Mª
De Repáraz López, Mª Blanca
Grafulla Cabau, Miguel
Garnica Cruz, Blanca
Huarte Iráizoz, Aurora
Díaz Martínez, Mª Pilar
Allo Simón, Guadalupe
Iriarte Sotes, Ana Isabel
Padilla Gallego Cristóbal

**DBHko 2garrena**

A taldea

Juan Bastida
Mª Pilar Arizpeleta
Celia Chasco Goñi
Isabel de Carlos (optativa)
Nieves Echarri
José María Aicua Marín
Fco. Javier Moreno

B taldea

Celia Chasco
Mª Victoria Sagasti
Estébana Calvo
Natividad Galán
Isabel de Carlos
Isabel de Carlos/Manuel de Prada
Javier Moreno
Fermín Milla
José María Aicúa
Juan Bastida

C taldea

Marco Fernández, Ana Carmen
Paternáin Asarta, Mª Jesús
Seguín García, Ana Mª
De Reparaz López, Mª Blanca
Murillo García Mina, Concepción
Allo Simón, Guadalupe
Huarte Iraizoz, Aurora
Díaz Martínez, Mª Pilar
Garnica Cruz, Blanca
Grafulla Cabau, Miguel
Olangua Ramos, Mª del Carmen
Turullols Lorente, Berta

D taldea

Marco Fernández, Ana Carmen
Paternáin Asarta, Mª Jesús
Seguín García, Ana Mª
López López, Socorro
Allo Simón, Guadalupe
Huarte Iraizoz Aurora
Díaz Martínez, Mª Pilar
Garnica Cruz, Blanca
Grafulla Cabau, Miguel
Iriarte Sotes, Ana Isabel
Olangua Ramos, Mª del Carmen
Turullols Lorente, Berta

**DBHko 3garrena**

A taldea

Mª Victoria Sagasti
Isabel de Carlos
Asunción Ducay
José Mª Aicúa
Manolo de Rada
Juan Bastida
Javier De Goñil
Estebana Calvo

B taldea

Fermín Milla
Estebana Calvo De Las Fuentes
Javier Goñi
Juan Bastida
Nieves Echarri
Manolo De Prada
Juan Ramón Peña
Asun Ducay
José Mª Aizcua
Isabel De Carlos

C taldea

López López, Socorro
Pascual Nuin, Mª José
Astráin Mendiburu, Mª Asunción
Ferraz Tomas, Mª Rosa
Rodríguez Rojo, María del Carmen
Allo Simón, Guadalupe
De Reparaz Lopez, Mª Blanca
Huarte Iraizoz, Aurora
Grafulla Cabau, Miguel
Garnica Cruz, Blanca
Elorza Barbajero, Jorge
Olangua Ramos, Mª del Carmen

D taldea

López López, Socorro
Astráin Mendiburu, Mª Asunción
De Repáraz López, Mª Blanca
Ferraz Tomás, Mª Rosa
Isturiz Beguiristain, Cristina
Pascual Nuin, Mª José
Allo Simón, Guadalupe
Huarte Iraizoz, Aurora
Grafulla Cabau, Miguel
Garnica Cruz, Blanca
Elorza Barbajero, Jorge
Olangua Ramos, Mª del Carmen

E.- “SAKANA” PARTZUERGOA (ANDRA MARI-IÑIGO ARITZA)

1.- Ikasle

219, bi ikastetxeak kontutan hartuta

2.- Ikasleen kokagunea

Eraikinetan ikasle talde bana dago, antolamendu hau duena:

| | 1goa | 2garrena | 3garrena | Guzt |
|---|---|---|---|---|
| Andra Mari eraikina | 29 | 39 | 29 | 97 |
| I. Aritza eraikina | 40 | 49 | 33 | 122 |
| Guztira | 69 | 88 | 62 | 219 |

3.- Irakasleak

I. Aritza eraikina

Mikel Aguirre
Edurne Artieda
Jon Bengoetxea

Esther Garaialde
Isabel Goldarazena
Eva Izagirre
Amelia Lapuente
Pello Leiza
Dorleta Mendibiñ

Andra Mari eraikina

Luis Carlos Preciado
Carlos Beunza
Mikele Flores
Alivia Galparsoro
Isabel Goldarazena
Ines Satrustegi
Ana Kaiuela
Orreaga Zubeldia
Mikel Calahorra
Eva Izaguirre
Dorleta Mendibil
Jesús Senar
Jon Bengoetxea
Mª Jesús Urtasun

4.- Zuzendaritza taldea

Mikel Aguirre

Mikel Flores

Esther Garaialde

Miren Elzaburu

F.- "MATER DEI-EL PUY-ANDERAZ" PARTZUERGOA

1.- Ikasle kopurua

| | IKASLE KOPURUA | TALDEAK |
|---|---|---|
| DBHko 1goa | 76 | 3 |
| DBHko 2garrena | 96 | 3 |
| DBHko 3garrena | 105 | 3 |

2.- Zuzendaritza taldea

Zuzendaria: José Antonio Osés Solchaga

Idazkaria: Pablo Senosiáin Carlos

3.- Irakasleak, zikloka eta mailaka

1 maila

José Aguirre
David Aruas
Mª Antonia Soto
Pablo Senoaiáin
Silvia Ongay
Isabel Sola
Mª Puy Irigoyen
Marta Puente
Teresa De Carlos
Eutimio Rodríguez
Mariano De Santos
José Cruz Asarta
Pilar Echeverría
Domingo Esparza
Ignacio Martinena
Teodoro Aretio
Silvia Ongay
Julia Luquin

2 maila

José Aguirre
Teodoro Aretio
Mª Asun Martínez
Mª Antonia Soto
Pilar Echeverría
Silvia Onga
Mª Antonia Soto
Joaquín Antonio Osés
Marta Puente
Teresa De Carlos
Eutimio Rodríguez
Mariano De Santos
Pilar Echeverría
Mariano De Santos
José María Martinicorena
Teodoro Aretio
Silvia Ongay
Joaquín Luquin

3 maila

Javier Salvatierra
Maite Salvatierra
Arancha García
María Lacarra
Maite Escudero
Maite Salvatierra
Arancha García
Inés Gil
Teresa De Carlos
Nieves Labat
José Cruz Asarta
Amelia Gaínza
Julián Ayesa
Domingo Esparza
José María Martinicorena
Maite Salvatierra
José Cruz Asarta
Ignacio Martirena
Julia Luquin

G.- "Miravalles-El Redín" patzuergoa

1.- Ikasle kopurua eta banaketa

| | DBH, 1 | | DBH, 2 | | DBH, 3 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ik. | T | Ik. | T | Ik. | T |
| Miravalles eraikina | 27 | 1 | 36 | 1 | 36 | 1 |
| El Redín eraikina | 39 | 1 | 40 | 2 | 31 | 1 |

2.-Zuzendaritza taldea

Miravalles-El Redín partzuergoa batzorde betearazle batek zuzentzen du. Hona hemen haren kideak:

Juan Curco Costafreda

Carmen Merodio Sotillo

Antonio Belda Plans

Matilde Gutiérrez Pereda

Luis Eduardo Domingo Oslé

Elisabete Bengoechea Cortázar

3.- Irakasleak

DBHko 1goa, A

Encarna Llamas Pérez
Laura Echeverría Vidaurreta
Pilar Echarte Echarte
Irene Unzué Erdozain
Elisabete Bengoechea Cortazar
Silvia Ruiz Ilundain
Pilar Frías Sagardoy
Patricia de la Viesca Cosgrove
Amparo Ollakindia García
Mª Dolores Isturiz Bar
Mª Rosario Lezaun Indurain

DBHko 2garrena, A

Mª Angeles Ariño
Silvia Ruiz
Charo Lezaun
Elena Ordoqui
Pilar Frías
Encarna Llamas
Pilar Echarte
Charo Porto
Amparo Ollakindia
MªDolores Isturiz
Patricia de la Viesca

DBHko 3garrena, A

Elisabete Bengoechea
Pilar Pérez
Loli De Dios Pérez
Silvia Ruiz
Mª Dolores Isturiz
Julia Castillo
Mª Puy Velasco
Charo Lezaun
Pilar Frías
Patricia de la Viesca
Amparo Ollakindia

DBHko 1goa, B

Juan Curco Costafreda
Francisco Ordoqui Lacabe
José L. Tovías López
Manuel de la Sota Garzón
Juan Curco Costafreda
Jesús Mª Pastor de Luis
Jesús Basarte Galbete
José Mª Logroño Zubillaga
Luis Mª Logroño Zubillaga
Tomás Pascualena Muniesa
Jesús Basarte Galbete

DBHko 2garrena, B

Antonio Crespillo Enguix
Francisco Ordoqui Lacabe
José Luis Tovías López
Manuel de la Sota Garzón
Miguel Rozaut Subira
Juan Carlos Palazón Martín
Ion Eguzquiza Mutiloa
José María Logroño Zubillaga
Luis Manuel Logroño Zubillaga
Tomás Pascualena Muniesa
Miguel Rozaut Subira

DBHko 2garrena, C

Eugenio Esteve Reina
Francisco Ordoqui Lacabe
José Luis Tovías López
Manuel de la Sota Garzón
Juan Fernández Moreno
Juan Carlos Palazón Martín
Ion Eguzquiza Mutiloa
José María Logroño Zubillaga
Luis María Logroño Zubillaga
Tomás Pascualena Muniesa
Antonio Crespillo Enguix

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamentuko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 13a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Gobernuko eta haren Erakunde Autonomoetako plantilan betegabe dauden lanpostuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Gobernuko eta haren Erakunde Autonomoetako plantilan betegabe dauden lanpostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Galderari erantzunez bidalitako agiriak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulego nagusietan).

## Ega ibaia garbitzeko lanen esleipenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Ega ibaia garbitzeko lanen esleipenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 21a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Eba ibaia garbitzeko lanei buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzeko ohorea dauka:

Galderari dagokionez.

– Ba al daki Ingurugiro Departamentuak zehatz-mehatz Ega ibaiaren garbiketa, besteak beste, helburu zuten zenbait lan nola esleitu diren? Baiezkoan, nori esleitu zaizkio aipatu lan horiek?

Ega ibaia, Lizarratik barna iragaten denean, garbitzeko egiten ari diren jarduketak, gehienbat hirigunean, Confederación Hidrográfica del Ebro delakoa egiten ari da, arroko erakunde horri dagozkion lanak baitira, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearekin bat.

– Zein da une honetan obraren zuzendaritzaren erantzukizuna duena?

Obra horiek Confederación Hidrográfica egiten ari da, Urei buruzko Legearekin eta Estatuko kontratazio publikoari buruzko legeriarekin bat.

– Ba al dauka Departamentu honek lan hauek egiteko beharrezkoa den proiektuaren behin betiko eduki osoak biltzen dituen espedientea?

– Eginda al dago beharrezkoa den ingurugiro eraginaren azterketa, lan hauek uktitutako eremu hartako habitatean eragingo duten ondorioaren nolakoa jakin ahal izateko?

– Obra egin baino lehen izan al da harremanik eremu hartakoak direlako edo hartan egiten dituztelako euren jarduerak ukiturik edo interesaturik dauden taldeekin?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan ez dakigu obra horiek burutzeko proiektu teknikoaren berri, dirudienez, Konfederazioak, premiazko kontratazioari ekin baitio. Ez dakigu Konfederazioak ingurugiro eraginaren azterketarik egin zuen edo eremu horretakoak diren edo bertan diharduten talde ukitu edo interesatuekin aldez aurretik harremanik izan zuen.

Gogoraztea bada, baina, 1996ko urtarrilaren 18an, Confederación Hidrográfica del Ebroko, Jurramendiko Mankomunitateko, Lizarrako Udale-

ko eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko teknikariek bilera bat izan zutela obren jarraipena egiteko. Horretan ibaia herri horretan garbitzeko jarduketen "lehengo fasea" deitu genezakeena osatzen duten lan batzuen garapena aztertu zen, alegia: bazterrak eta ibilgua garbitzea, landareak modu bereizgarrian kendu eta moztea, dragatze txikiak, legarhobiak egokitzea eta ezpondak berriro profilatzea.

Gainerako jarduketerako, 1996ko abenduaren 10eko izkribuaren bidez, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak ingurugiro irizpide batzuk jakinarazi ditu. Uste du Confederación Hidrográfica del Ebrok haiek lotzea beharrezkoa dela, lanak dauden naturguneak babestuz eta zainduz egiten direla bermatzeko.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# Zenbait ikastetxe itunduk "dirulaguntzetarako laguntza" kontzeptupean gurasoei eskatzen dizkieten diru-ekarpenei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak zenbait ikastetxe itunduk "dirulaguntzetarako laguntza" kontzeptupean gurasoei eskatzen dizkieten diru-ekarpenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 26ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 21a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Martín Landa Marco Foru Parlamentariak zenbait ikastetxe itunduk "dirulaguntzetarako laguntza" kontzeptupean gurasoei eskatzen dizkieten diru-ekarpenei buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Indarreko arautegiak ikuskatzaile-kidegoari aitortzen dizkion eginkizunak betetzearen ondorio direnak.

2.- Tuterako ikastetxe itundu batek kontsulta bat egin zion Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, hainbat diru-kopuru jasotzea litekeena ote zen jakiteko. Ondoren gai honi berari buruz parlamentu-galdera bat ere jaso zuen Departamentuak. Hau honela, Hezkuntza Ikuskapenerako Zerbitzuak Tuterako San Francisco Javier Ikastetxeak eginiko eskaera arretaz aztertu zuen. Ikastetxeak hauxe eskatzen zuen: 1996/97 ikasturtean zerbitzu osagarriengatik hainbat dirukopuru kobratzeko baimena. Ondoren, Antonio Marticorena ikuskatzailea urriaren 22an ikastetxera joan zen, eta ikusi ahal izan zuen ordaindutako kopuruak bat zetozela indarreko arautegiak (urriaren 20ko 1694/1995 E.D.) ematen duen kobratzeko baimenarekin.

3.- Urriaren 20ko 1694/1995 Errege Dekretuaren arabera, eskolatik kanpoko jarduerengatik edo jarduera osagarriengatik kobratzeko ez da baimenik behar.

Zerbitzu osagarriei dagokienez, egun hauetan baimenaren gora behera burutzen ari da, eta kontu hau 1996ko abenduaren 11n irekirik dago.

| Ikastetxearen izena | Zerbitzu osagarriak | Kostua |
|---|---|---|
| Nuestra Señora de Lourdes | Eskolako jantokia | 2.500 pta/ikasle/aste |
| Paz de Ziganda | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa<br><br>Kabinete mediku edo psikopedagogikoa | 7.500 pta/ikasle/hilabete<br>1.540 pta/ikasle/hilabete<br>Burlata 3.015 pta/ikasle/ hilabete<br>1.500 pta/urte |
| La Presentación | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa | 9.975 pta/ikasle/hilabete<br>6.850 pta/ikasle/hilabete |
| Colegio Santa María La Real | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa<br>Kabinete mediku edo psikopedagogikoa | 725 pta/egun<br>6.350 pta/hilabete<br>2.685 pta/urte |
| La Compasión | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa | 500 pta/ikasle/egun<br>3.000 pta/ikasle/hilabete |
| Sagrado Corazón | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa | 500 pta/ikasle/egun<br>3000 pta/ikasle/hilabete |
| Santa Luisa de Marillac | Eskolako jantokia | 11.000 pta/ikasle/hilabete |
| Amor de Dios | Eskolako jantokia | 10.000 pta/ikasle/hilabete |
| Colegio Irabia | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa<br>Kabinete mediku eta psikopedagogikoa | 110.500 pta/ikasle/urte<br>64.000 pta/ikasle/urte<br>2.300 eta (+) 9.500 pta/ikasle/urte |
| Notre Dame | Eskolako jantokia | 11.005 pta/hilabete (5 egun)<br>8.835pta/hilabete (4 egun) |
| Regina Pacis | Eskolako jantokia<br>Kabinete mediku eta psikopedagogikoa | 10.000 pta/ikasle/hilabete<br>150 pta/ikale/hilabete |
| Miravalles | Eskolako jantokia<br><br><br>Eskola-garraioa | 1 mota: 11.550 pta/ikasle/hilabete<br>2 mota: 8.400 pta/ikasle/hilabete<br>3 mota: 3.100 pta/ikasle/hilabete<br>1 lerroa: 9.500 pta/ikasle/hilabete<br>2 lerroa: 5.500 pta/ikasle/hilabete |
| El Redín | Eskolako jantokia<br><br><br>Eskola-garraioa | a mota: 13.265 pta/ikasle/hilabete<br>b mota: 10.900 pta/ikasle/hilabete<br>c mota: 3.200 pta/ikasle/hilabete<br>a mota: 9.925 pta/ikasle/hilabete<br>b mota: 7.500 pta/ikasle/hilabete<br>c mota: 5.670 pta/ikasle/hilabete |
| M.M. Misioneras | Eskola-garraioa | 11.600 pta 4 bidaia ikasle/2 hilabete<br>8.400 pta 2 bidaia ikasle/2 hilabete |
| Santo Angel | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa | 11.743 pta/ikasle/hilabete<br>7.000 pta/ikasle/hilabete |
| Colegio Calasanz | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa | 11.000 pta/ikasle/hilabete<br>8.000 pta/ikasle/hilabete |
| San Ignacio | Eskolako jantokia<br>Eskola-garraioa<br><br>Kabinete mediku edo psikopedagogikoa | 12.564 pta/ikasle/hilabete<br>11.600 pta 4 bidaia ikasle/2 hilabete<br>8.400 pta 2 bidaia ikasle/2 hilabete<br>1.000 pta/ikasle/hilabete |
| Colegio San Francisco Javier | Kabinete mediku edo psikopedagogikoa | 700 pta/ikasle/hilabete |
| Labiaga Ikastola | Eskolako jantokia | 300 pta/ikasle/egun |
| Colegio Sagrado Corazón | Eskolako jantokia | 500 pta/ikasle/egun |

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 11

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 8ko 59 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 21a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruz Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak eginiko galderari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

Gaurregun, enplegua sustatzeko kontratua azaroaren 2an bukatu zenez -kontratu horren bidez baitziharduen liburutegiak - ez dago lanpostu beterik Ablitasen haren kontu beste kontratu bat egiteko.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak proposaturik, administrazio espedienteari ekin dio, non Nafarroako Gobernuari proposatzen baitzaio lanpostu bat sor dezala herri hartako liburutegi publikoari atxikitzeko.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoaren babesean.

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## “Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei” emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak “Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei” emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak “Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak” direlakoei emaniko dirulaguntzei buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunak erantzun hau igortzen du:

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Batzordean, azaroaren 22an, izan nuen parlamentu-age-

rraldian adierazi nuenez, Enplegua sustatzeko aurrekontu-programak 1994-1995 urteetan izaniko betetze-mailari buruz argibideak emateko, Kontuen Ganbararen txostena ikusirik, Departamentuak laguntza batzuk bideratu eta eman ditu, haiei buruzko arauteriari hertsiki lotuz, organo fiskalizatzaile hark espreski aitortu bezala.

Dirulaguntzen hartzaileei dagokienez, entitateren batek prestakuntza-ekintzen kostuen ziurtagiriak aurkezterakoan eginiko akats formal batzuk besterik ez ditu aipatzen. Ez ziren behin ere izan laguntzak hartzeko eskubidea galarazten zuten oinarrizko akatsak.

Azkeneko hori gertatzen denean, Departamentuko Enplegu Zerbitzuak berak uzten du bertan behera edo ezabatzen emaniko laguntza, kasuan kasuan. Hori horrela, dirua ez da hartzen edo itzuli egin behar da.

Akatsen xedea dirulaguntzen iruzurrezko kobrantza bada, Gizarte Mailako Arau-hauste eta Zehapenei buruzko 1988ko apirilaren 7ko Legearen babesean zehatzen ahal diren portaerak badira, kasuan kasuko argibideak Lan Ikuskaritzari jakinarazten zaizkio, zehapen espedienteari ekin diezaion. Horren ondorioa behar den diru-zehapena izanen da eta, horrekin batera, gertaeren larriaren arabera ezartzen den epean laguntzak hartzeko debekua.

Kasu larri-larrietan Gobernuak, Ministerio Fiskalaren bidez, Jurisdikzio Penalak esku sar dezala eskatu du.

Gobernuak, beraz, badu asmoa dirulaguntzak ematen segitzeko, arauari jarraikiz, eskuratzeko eskubidea daukatenei. Hala ere, fondoak desbideratzea saihesteko eta haiek behar ez bezala ez ordaintzeko, 1995az geroztik, laguntzak ikuskatu, jarraitu eta justifikatzeko programa jarri du abian, gaurregun Kontuen Ganbararen gomendioetara doitu eta zabaldu dena eta laguntzak onuradunen portaerei dagozkiela bermatzen duena.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

# Aldi baterako lanerako enpresak arautzen dituzten ekainaren 1eko 14/1994 Legeari eta urtarrilaren 3ko 4/1995 Errege Dekretuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak aldi baterako lanerako enpresak arautzen dituzten ekainaren 1eko 14/1994 Legeari eta urtarrilaren 3ko 4/1995 Errege Dekretuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak aldi baterako lanerako enpresak arautzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legeari eta Lege hartako Erregelamendua garatzen duen urtarrilaren 3ko 4/1995 Errege Dekretuari buruz eginiko galderari dagokionez, idatzizko erantzuna eskatu duenari dagokionez, Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak erantzun hau igortzen du:

1.- Nafarroako Gobernuak baimenduriko aldi baterako lanerako enpresak.

Gaurregun 6 dira Nafarroako Gobernuaren baimena indarrean duten enpresak: 1. eraskina.

Enpresa horiez gain, badaude beste 16, Lan eta Gizarte Aferetarako Ministerioak baimenduak.

2.- Finantza bermeen zerrenda:

| | | |
|---|---|---|
| * SERCOTEM: | Banku-abala: | 21.199.500 pezeta |
| | Banku-abala: | 745.500 pezeta |
| | Banku-abala: | 777.000 pezeta |
| * FIDELIO: | Banku-abala: | 21.199.500 pezeta |
| | Banku-abala: | 745.500 pezeta |
| | Banku-abala: | 777.000 pezeta |

| | | |
|---|---|---|
| * GRUPOTEM: | Banku-abala: | 12.508.650 pezeta |
| | Banku-abala: | 9.436.350 pezeta |
| | Banku-abala: | 444.133 pezeta |
| | Banku-abala: | 332.868 pezeta |
| * TRATENA | Banku-abala: | 21.945.000 pezeta |
| | Banku-abala: | 777.000 pezeta |
| * PRODEM: | Banku-abala: | 20.000.000 pezeta |
| | Banku-abala: | 722.000 pezeta |
| * TRALUTEMP: | Banku-abala: | 22.722.000 pezeta |

3.- Lan agintaritzari argibideak eman beharra:

Aldi baterako lanerako enpresek inoren esku jartzeko kontratuei buruz aurkezturiko nahitaezko agiri guztien fotokopia (II. Eraskina).

4.- 14/1994 Legeko 20.3 artikuluan xedaturikoaren arabera, oso larritzat jotzen diren arau-hausteak egin dituzten enpresa erabiltzaileen zerrenda.

20.3 artikuluan ezarririkoari dagokionez, ez dakigu arau-hausteen berri.

5.- Oso larritzat jotzen diren arau-haustean egin dituzten aldi baterako enpresen zerrenda.

Ez dakigu oso larritzat jotzen diren arau-hausteen berri.

6.- Lanbide heziketa

14/1994 Legeko 12.2 artikuluaren arabera, aldi baterako lanerako enpesek “nahitaez erabili behar dute urtean soldata-masaren ehuneko 1 gero enpesa erabiltzaileei eskaintzen zaizkien langileen prestakuntzarako”. Ehuneko hori, aldi baterako lanerako enpresetarako Hitzarmen Kolektiboko sektorialeko 40. artikuluaren arabera, 1,25 izanen da.

Horri buruz, eginiko lehenengo galderari dagokionez (Nafarroako Gobernuak eginiko jarraipen eta kontrolari dagokionez), zehaztu behar da -aldi baterako lanerako enpresen erregistroan galdera horretaz aldian-aldian agiririk aurkeztu beharrik ez dagoenez, horretarako arauetan ezarririkoaren arabera-, zuzenean fiskalizatzeko aukera bakarra ziurtagirien bidezkoa da. Izan ere, urtarrilaren 13ko 4/1995 Errege Dekretuko 4.2 artikuluan ezarririkoaren arabera, “luzatzeko baimena” eskatzen denean urtero aurkeztu behar dira.

Eta, hain zuzen, Lan Zuzendaritza Nagusiak, abian jartzeko baimena luzatu aitzin, eginbehar hori bete dela fiskalizatzen du, aurkezturiko agirien bidez. Horretarako, Errege Dekretu hartako 4.2.d) artikuluan aurreikusi bezala, Kontabilitateari buruzko Plan Orokorrean ezarririkoarekin bat etorri behar dute.

Halaber, fiskalizazio eta egiaztatze hori Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Lan Ikuskaritza Probintzialaren bidez egiten da. Hori merkataritza-jardueraren baimena luzatu aitzin ematen duen txostenean adierazten da.

Honetaz eginiko bigarren galderari dagokionez (emaniko prestakuntzaren balantzea, orduak, gaiak, langile kopurua etab.) begi bistakoa da, aurreko atalean adierazirikoarekin bat, aldi baterako lanerako enpresek frogatu behar dutela soldata-masaren ehuneko 1,25 prestakuntzan erabili dutela. Hori “Langileen gastuen aitorpena, gal-irabazien kontuan adierazirik, .... Kontabilitateari buruzko Plan Orokorrak eskaturiko egitruan sailkaturik” delakoaren bidez.

Hala ere, zenbat kasutan (salaketetan, prestakuntza bete ez dela susmatzen denean eta abarretan) Lan Zuzendaritza Nagusiak egokia den kontrola egin dezake, Lan Ikuskaritza Probintzialaren bidez.

7.- Aldi baterako lanerako enpresek kontraturik langileen arteko istripu-ehunekoa.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuan bilduriko istripu guztiei dagozkien datuak ditugu eskura bakarrik, zauriaren larriaren arabera sailkaturik:

1995. urtea

| Arinak | Larriak | Oso larriak | Hilgarriak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 160 | 3 | 2 | 1 | 166 |

1996. urtea

| Arinak | Larriak | Guztira |
|---|---|---|
| 98 | 1 | 99 |

8.- Eginiko kontratuen zerrenda, merinerrika.

Datu hau erantzutea erabat ezinezkoa da, 4/1995 Errege Dekretuko 16. artikuluak aipatzen duen 4. eraskinean aurreikusiriko ereduaren arabera, aldi baterako lanerako enpresek hilero aurkeztu beharreko “Inoren esku jartzeko kontratuen zerrenda” delakoan ez baita datu agertzen. Hori dela eta, ez zaio aldi baterako lanerako enpresen erregistroari ematen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

(Oharra: Aipatutako eraskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulego nagusietan).

# Administrazioko plantila finkoko langileak ez direnek betetzen dituzten zenbait Burutzari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Administrazioko plantila finkoko langileak ez direnek betetzen dituzten zenbait Burutzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeko kide den Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du eta hauxe eskatu: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantila finkokoak ez diren langileek betetzen dituzten bulego, unitate, atal, zerbitzu eta abarren burutzen zerrenda, baita noiztik gertatzen den ere. Hurrengoak direla jakinarazten dizut:

**A)** Foru Komunitateko Administrazioan:

– Nafarroako Foruzaingoaren Burua: Manuel Jaramillo Rodrigo jauna, 1984ko urriaren 2tik aurrera.

– Toki Adminiustrazioko Departamentuaren Toki Entitateentzako Aholkularitza eta Lankidetza Zerbitzuko Zuzendaria: Carlos Hernández Hernández jauna, 1996ko urriaren 7tik aurrera.

**B)** Erakunde autonomoetan:

1. Nafarroako Emakumearen Institutua:

– Zuzendari Kudeatzailea: Loren Albeniz Ascorbe andrea, 1996ko urriaren 1etik aurrera.

2. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua:

– Zuzendari Kudeatzailea: Javier Trigo Oubiña jauna, 1996ko irailaren 25etik aurrera.

– Kirol Zuzendariordea: José Mª Echeverría Larrea jauna, 1996ko urriaren 23tik aurrera.

– Gazteri Zuzendariordea: Ana Elizalde Urmeneta andrea, 1996ko urriaren 23tik aurrera.

3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua:

– Elizondoko Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeko Zuzendaria (O.O.L.T.): José Antonio Iruretagoyena Amiano jauna, 1992ko otsailaren 1etik aurrera.

– Irurtzungo O.O.L.T.ko Zuzendaria: Miguel Senosiáin Zabalegui jauna, 1993ko ekainaren 1etik aurrera.

– Bideko Ama Birjina Ospitaleko Harrera Ataleko Burua: Javier García Vega jauna, 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera.

– Bideko Ama Birjina Ospitaleko Erizaintza Unitateko Burua: Pilar Vázquez Durán andrea, 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 13a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleria ohartarazteko neurriei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleria ohartarazteko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kide den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ea Nafarroako Gobernuak biztanleria eduki horiei buruz (Interneten bidezko informazio pornografikoa, edo, hala bada, beste hainbat medio zibernetikoren bidezkoa) ohartaratzeko neurriren bat hartzeko asmoa ote duen, baita zabaltzea galarazteko ere, hau teknikoki ahalezkoa bada. Hori horrela, hurrengo erantzuna ematen da, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluarekin bat:

1.- Internet sarearen ezaugarririk behinena mundu mailako hedapena da eta informazioa trukatzeko ematen duen aukera, herrialde-mugarik gabe. Beraz, Nafarroako Gobernuari ezinezko zaio informazio mota baterako edo besterako sarbidea mugatu edo eragoztea.

2.- Informazio pornografiko jakin batzuetatik atera daitezkeen sexualitatearen eta, orokorrean, askatasunaren aurkako balizko delituen jazarpena ezinezko zaio Gobernu honi:

a) Foruzaingoak ez duelako aginpiderik polizia judizialaren arloan.

b) Interneten agertzen den informazioak sarera iristeko zerbitzariari buruzko datuak jakiteko aukera ematen du, eta hortik abiatuta hura ezagutu. Delituen arloko nazioarteko hitzarmenen kaltetan gabe, Estaturen batek tipifikaturiko deliturik egin dela egiaztatzen badu, jazarri eta zigortu beharko du.

3.- Galderan agertzen den bezala, galdera “albisteen aurrean” egiten da. Nafarroako Gobernuak ez du biztanleriari bestelako ohartarazpenik egiteko asmorik, egungo informazioa nahikoa dela uste duelako.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

---

## Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz. Hori horrela, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak hurrengo erantzuna ematen du:

1.- Gobernuak ba ote duen Castejón-Corella-Cintruénigo-Madril lotzen dituen tren bakar hau kendu nahi izateko ingurabarren berri

Nafarroako Gobernuak badu Castejón-Corella-Cintruénigo-Madril lotzen dituen tren zerbitzua kentzeko ingurabarren berri.

1994an, RENFE enpresak zuen ustiapen defizita maila jakin bateraino jaisteko asmoz, Estatuaren eta RENFEren arteko 94/98 programa-kontratua izenpetu zen. Eskualde zerbitzuez denaz bezainbatean, aipatu programa-kontratutik ateratzen den politika da zerbitzuak kentzea betetze-indizea, dirusarrera/gastuen arabera, %40 baino gutxiago denean, zerikusia duten autonomi elkarteek defizita gutxitzen ez badute dagokion hitzarmena izenpetuz.

Hitzarmenen filosofia hauxe da: aipatua baino betetze-indize txikiagoa duen zerbitzuari eusteko interesa duen Autonomi Elkarteak ustiapen-kostu guztia ordaintzeko konpromezua hartzen du eta zerbitzuaren ustiapenaren ondoriozko dirusarrerak jasoko ditu. Aipatu programa-kontratuaren arabera, dirusarrera/gastuen indizea %25 baino txikiagoa duten trenak kentzeko ez da Sustapen Ministerioaren txostenik behar, ezta autonomi elkartearenik ere.

1995eko otsailaren 21ean, orduko Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioko Garraio Zerbitzuetarako Idazkaritza Nagusiaren ebazpenak baimena eman zion RENFEri aipatu tren zerbitzuak kentzeko. Gaztela eta Leongo Juntak, ordea, zerbitzuari eustea erabaki zuen, bere kontura, eta 1995eko martxoaren 22an izenpetu zuen zegokion hitzarmena.

Autonomi Elkarte horrek, trenaren erabiltzaile-kopuruaren datuen eta emaitza ekonomikoen aurrean, zerbitzua kentzeko eskatu zion RENFEri 1996ko azaroaren 24tik aitzina.

1996ko azaroaren 22an, RENFE-Eskualdekoak Zuzendaritzak telefonoz jakinarazi zigun Castejón-Soria 8780 eta 8781 zenbakiko trenen zerbitzua kendu behar zuela 1996ko azaroaren 25etik aitzina. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hauxe eskatu zuen: zerbitzuari eustea egoera aztertu eta erabaki egokia hartu arte.

1996ko azaroaren 26an, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan sartu zen RENFE-Eskualdekoak Zuzendaritzaren idazkia, Castejón-Soria 8780 eta 8781 zenbakiko trenen zerbitzua 1996ko abenduaren 1etik aitzina kendu behar zutela jakinaraziz.

2. Ahalezkoa eta are beharrezkoa irizten ote dion RENFErekin negoziatzen hasteari, Gaztela eta Leongo Autonomi Elkarteak egiten duen bezala, trenbide-zerbitzu honi eutsi ahal izateko.

Nafarroako Gobernuko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak idazkia bidali dio RENFE-Eskualdekoak Zuzendariari hauxe eskatuz: eguneroko betetze-mailaren azterlan zehaztua eta zerbitzuari eustea, maiztasun eta ustiapen-kostu gutxiagorekin.

RENFE-Eskualdekoak Zuzendaritzak, 1996ko abenduaren 2an erantzun zuen proposaturikoa ezinezko dela, sortzen duen defizitarengatik.

Nafarroako Gobernuko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak hurrengoak aztertu zituen:

1996ko eguneko betetze indize batez-bestekoak, horra:

8780 trena: Madril 9,40 - Castejón 14,32

| | Cintruénigo | Corella | Castejón |
|---|---|---|---|
| Igo diren bidaiariak | 0,3 | 0 | 0 |
| Jaitsi diren bidaiariak | 1,3 | 0,5 | 11,2 |

8781 trena: Castejón 15,09 - Madril 20,15

| | Cintruénigo | Corella | Castejón |
|---|---|---|---|
| Igo diren bidaiariak | 2,4 | 0,5 | 13,15 |
| Jaitsi diren bidaiariak | 0,7 | 0,1 | 0 |

Indarrean den Estatua-RENFE programa-kontratuaren araberako ustiapen kostua hurrengoa da: 922 pta./km. 1996an, 932 pta./km. 1997an eta 959 pta./km. 1998an. Kontuan izanik Soria eta Castejón bitartean 104 kilometro direla, ustiapen kostua 69.788.160 litzateke 1997an eta 71.809.920 pta. 1998an.

Eta Soria eta Madrilgo joan-etorria egiteko bestelako komunikabideak;

Iruñea-Soria emakida: CONDA, S.A.

Ibilbidea: Iruñea, Tafalla, Erriberri, Caparroso, Los Abetos, Castejón, Corella, Cintruénigo, Fitero, Valverde de Agreda, Matalebreras, Soria.

Zerbitzuak: Lanegunetan, Iruñea-Soria 10,15etan eta itzultzea 15,30etan.

Horiek horrela, deliberatu du, Foru Komunitateak dituen aurrekontu aurreikuspenen arabera, Castejón eta Soria bitarteko tren zerbitzuaren finantzaketarik bere gain ez hartzea, egun.

3. Harremanik izan ote duen bai RENFErekin eta bai Errioxako Autonomi Elkartearekin, litekeen itun batek zenbateko kostu ekonomikoa egin lezakeen baloratu ahal izateko.

Telefonoz hitz egin dugu Errioxako Autonomi Elkarteko Garraio Zuzendari Nagusiarekin, eta hark esan digu aipatu Elkarteak ez duela zerbitzua finantzatzeko asmorik, gutxi betetzen delako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 23a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

# Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeko kide den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz. Hori horrela, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak hurrengo erantzuna ematen du:

1.- Egia al da 1996ko abenduaren 1ean RENFEk aipatu Castejón-Soria zerbitzua emateari uztiko diola?

Bai, egia da RENFE-Eskualdekoak Zuzendaritzak erabaki duela Castejón-Soria 8780 eta 8781 zenbakiko trenen zerbitzua 1996ko abenduaren 1etik aitzina kentzea.

1994an, RENFE enpresak zuen ustiapen defizita maila jakin bateraino jaisteko asmoz, Estatuaren eta RENFEren arteko 94/98 programa-kontratua izenpetu zen. Eskualde zerbitzuez denaz bezainbatean, aipatu programa-kontratutik ateratzen den politika da zerbitzuak kentzea betetze-indizea, dirusarrera/gastuen arabera, %40 baino gutxiago denean, zerikusia duten autonomi elkarteek defizita gutxitzen ez badute dagokion hitzarmena izenpetuz.

Hitzarmenen filosofia hauxe da: aipatua baino betetze-indize txikiagoa duen zerbitzuari eusteko interesa duen Autonomi Elkarteak ustiapen-kostu guztia ordaintzeko konpromezua hartzen du eta zerbitzuaren ustiapenaren ondoriozko dirusarrerak jasoko ditu. Aipatu programa-kontratuaren arabera, dirusarrera/gastuen indizea %25 baino txikiagoa duten trenak kentzeko ez da Sustapen Ministerioaren txostenik behar, ezta autonomi elkartearenik ere.

1995eko otsailaren 21ean, orduko Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioko Garraio Zerbitzuetarako Idazkaritza Nagusiaren ebazpenak baimena eman zion RENFEri aipatu tren zerbitzuak kentzeko. Gaztela eta Leongo Juntak, ordea, zerbitzuari eustea erabaki zuen, bere kontura, eta 1995eko martxoaren 22an izenpetu zuen zegokion hitzarmena.

Autonomi Elkarte horrek, trenaren erabiltzaile-kopuruaren datuen eta emaitza ekonomikoen aurrean, zerbitzua kentzea eskatu zion RENFEri .

2.- Cintruénigo, Fitero eta aldameneko herrietako biztanleak kaltetuak izango dira zerbitzua bukatzen bada, eta halaber, kaltetuak izango dira Sorian bizi eta gure Foru Komunitatera trenbide hau erabiliz datozen ikasleak. Hau honela, hartuko al du Nafarroako Gobernuak neurririk trenbide honen ixtea galarazteko?

Nafarroako Gobernuko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak idazkia bidali dio RENFE-Eskualdekoak Zuzendariari hauxe eskatuz: eguneroko betetze-mailaren azterlan zehaztua eta zerbitzuari eustea, maiztasun eta ustiapen-kostu gutxiagorekin.

RENFE-Eskualdekoak Zuzendaritzak, 1996ko abenduaren 2an erantzun zuen proposaturikoa ezinezko dela, sortzen duen defizitarengatik.

Nafarroako Gobernuko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak hurrengoak aztertu zituen:

1996ko eguneko betetze indize batez-bestekoak, horra:

8780 trena: Madril 9,40 - Castejón 14,32

| | Cintruénigo | Corella | Castejón |
|---|---|---|---|
| Igo diren bidaiariak | 0,3 | 0 | 0 |
| Jaitsi diren bidaiariak | 1,3 | 0,5 | 11,2 |

8781 trena: Castejón 15,09 - Madril 20,15

| | Cintruénigo | Corella | Castejón |
|---|---|---|---|
| Igo diren bidaiariak | 2,4 | 0,5 | 13,15 |
| Jaitsi diren bidaiariak | 0,7 | 0,1 | 0 |

Indarrean den Estatua-RENFE programa-kontratuaren araberako ustiapen kostua hurrengoa da: 922 pta./km. 1996an, 932 pta./km. 1997an eta 959 pta./km. 1998an. Kontuan izanik Soria eta Castejón bitartean 104 kilometro direla, ustiapen kostua 69.788.160 litzateke 1997an eta 71.809.920 pta. 1998an.

Eta Soria eta Madrilgo joan-etorria egiteko bestelako komunikabideak;

Iruñea-Soria emakida: CONDA, S.A.

Ibilbidea: Iruñea, Tafalla, Erriberri, Caparroso, Los Abetos, Castejón, Corella, Cintruénigo, Fitero, Valverde de Agreda, Matalebreras, Soria.

Zerbitzuak: Lanegunetan, Iruñea-Soria 10,15etan eta itzultzea 15,30etan.

Horiek horrela, deliberatu du, Foru Komunitateak dituen aurrekontu aurreikuspenen arabera, Castejón eta Soria bitarteko tren zerbitzuaren finantzaketarik bere gain ez hartzea, egun.

3. Zer konpromezu hartu du Nafarroako Gobernuak RENFErekin Nafarroako Erriberako biztanleak tren-zerbitzurik gabe geldi ez daitezen?

Egun, Nafarroako Gobernuak ez du inongo hitzarmen edo konpromezurik Nafarroako Erriberako biztanleak ukitzen dituen tren-zerbitzuari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 23a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

## Nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzen buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoaren babesean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak hau dio:

Eginiko galderak orden berean erantzunen ditut:

1.- Irailaren 28ko 297/1992 Foru Dekretua, 92/10/05eko 120 zk.ko N.A.O.

Urtarrilaren 24ko 26/1994 Foru Dekretua, 94/02/09ko 17 zk.ko N.A.O.

Ekainaren 20ko 121/1994 Foru Dekretua, 94/07/08ko 81 zk.ko N.A.O.

Irailaren 5eko 157/1994 Foru Dekretua, 94/10/03ko 119 zk.ko N.A.O.

1992ko urriaren 5eko Foru Agindua, 92/10/16ko 129 zk.ko N.A.O.

1995eko maiatzaren 2ko Foru Agindua, 95/06/05eko 71 zk.ko N.A.O.

2.- 1996rako Aurrekontuei buruzko Aurreproiektuan izendaturiko dirua: 700.000.000 pezeta.

Parlamentuko biderapeneko goranzko aldaketa: 100.000.000 pezeta.

Kreditu transferentzia eta gehikuntzen bidezko goranzko aldaketa, 1996/12/12 arte: 371.658.317 pezeta.

Guztira: 1.171.658.317 pezeta.

3.- 1996ko ekitaldiaren hasieran konpromezua harturiko kreditu, aurreko ekitaldietan harturiko gastu konpromezuengatik: 540.253.696 pezeta.

1996ko ekitaldiaren hasieran baimentzeke dagoen kreditua: (1) 259.746.304 pezeta

Konpromezua harturiko kreditua askatzea, ezabatzeagatik, dirulaguntza gutxitzeagatik: (2) 39.272.516 pezeta

Kontusaileko kreditu-gehikuntza, transferentzia eta gehikuntzengatik: (3) 371.658.317 pezeta

1996an gastu baimen berriengatik eskura izan den kreditu guztia, (1)+(2)+(3), 1996ko Aurrekontuaren kargura: 670.677.137 pezeta.

4.- 1996ko ekitaldian ebatziriko espedienteen lauki-laburpena erasten da. Horretan, laguntza-lerro bakoitza letra txikiaz sailkatzen da eta ebatziriko espedienteen zerrenda ere erasten da.

5.- 1996ko ekitaldian ebatziriko espedienteetako gastu-konpromezua

1997ko ekitaldirako:.................... 667.199.428 pta.
1998 ekitaldirako: ....................... 5.780.191 ta.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

808/87 E.D.ari atxikiriko dirulaguntza eskaeren zerrenda

1996ko ordainketak

Laguntzak, elkargoz elkargo

| Esptea | Eskaera eguna | Mailegua | Inbertsioa | Zuzen. dirulag.. |
|---|---|---|---|---|
| 2.119 | 23/03/90 | | 1.035.000 | 467.358 |
| 3.021 | 21/09/90 | | 1.035.000 | 467.358 |
| 3.048 | 03/10/90 | | 29.970.000 | 4.112.750 |

Hobetzeko planetako laguntzak

| Esptea. | Eskaera eguna | Mailegua | Inbertsioa | Zuzen. dirulag. |
|---|---|---|---|---|
| 2.724 | 09/08/90 | 3.450.000 | 7.260.000 | 3.450.000 |

96/01/01etik 96/12/11ra bitarte bideraturiko espedienteak

297/92 F.D.

| Lerroa | Esp. kop. | Korrituen hobaria | Zuzen. dirulag. 96 | Zuzen. dirulag. 97 | Zuzen. dirulag. 98 | Dirulaguntza, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A Hobetzeko plana | 361 | 283.666.157 | 0 | 460.793.046 | 5.780.191 | 750.239.394 |
| B 1go. instalazioa | 168 | 69.678.185 | 195.767.002 | 195.767.001 | 0 | 461.212.188 |
| C Kontabilitatea | 183 | 0 | 8.503.500 | 0 | 0 | 8.503.500 |
| B1 Lurzati kontzentrazioa | 121 | 1.169.378 | 26.994.259 | 1.625.000 | 0 | 29.788.637 |
| C4 Olibondoa eta elorri beltza | 35 | 0 | 15.587.272 | 0 | 0 | 15.587.272 |
| D1 Boilurrak | 1 | 0 | 491.353 | 0 | 0 | 491.353 |
| E1 Sesma eta Elizagorria | 1 | 0 | 2.129.230 | 0 | 0 | 2.129.230 |
| F Lanbide heziketa | 309 | 0 | 19.680.000 | 0 | 0 | 19.680.000 |
| G Talde inbertsioa | 6 | 2.384.072 | 0 | 9.014.381 | 0 | 11.398.453 |
| Guztira | 1185 | 356.897.792 | 269.152.616 | 667.199.428 | 5.780.191 | 1.299.030.027 |

| Lerroa | Esp. kop. | Korrituen hobaria | Zuzen. dirulag. 96 | Zuzen. dirulag. 97 | Zuzen. dirulag. 98 | Dirulaguntza, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 808/87 E.D. | 4 | | 8.497.466 | | | |
| Zainzuriak ordaintzea | | | 24.373.300 | | | |

1996 urteko dirulaguntza ............... 658.921.174
1997 urterako konprometitua.......... 667.199.428
1998 urterako konprometitua.......... 5.780.191

(Oharra: Aipatutako espedienteen zerrenda Foru Parlamentarien esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulego nagusietan).

---

## “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak hau dio:

Orden berean erantzunen ditut eginiko galderak:

1.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak “nominatibak” deritzen kapital-transferentziako kontusail bat da, 1996ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Legea bezala aplikatzen dena. Ez dauka berezko arauteriarik.

2.- Hornitu zeneko kopuru osoa besterik ez da eskura izan (15.000.000 pezeta). Ez da gehitu ez fondo propioen bidez, ez hirugarrenen ekarpenen bidez.

3.- Hasierako kreditua: 15.000.000 pezeta

Konpromezua harturiko kreditua: pezeta bakarra ere ez.

1996ko kreditu aldaketak: pezeta bakarra ere ez.

1996an eskura izaneko kreditua: 15.000.000 pezeta.

4.- Kontusaileko ordainketa hiru hilabetean behin egiten da. Azkeneko hiru hilekoa ordaindu baino lehen Ebroko Laborategiak eginiko lanen oroit-idazkia aurkeztu behar da.

Ekitaldi honetan, eginiko lanen oroit-idazkia hauxe izan da:

a) Elikagaien ontzietako bernizen karakterizazioa, zurgapen infragorriaren espektroskopiaren bidez. Osasun kalitatearen neurketa.

b) Landare kontserben sektoreko husketen alorraren egoerari buruzko azterketa.

c) Txanpinoia eta frantsesporru zuria plastikozko mintzen bidez paketatzea, IV gamako ekoizkin gisa merkaturatzeko.

d) Pikilo piperrako kapsizina zehaztea.

5.- Hurrengo ekitaldietarako ez da gastu konpromezurik hartu.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazitza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martnez Alfaro

## “Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra”Parlamentari Taldeari atxikitako José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoen babesean. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, galderak egin diren hurrenkerari jarraiki:

1.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeaz gain, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Kontseilariaren 1994ko otsailaren 7ko Foru Aginduz arautzen dira nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako.

2.- Hasieran zuen dotaziotik, alegia 16 milioi pezeta, 10 milioi erabili dira eta ez da gehikuntzarik gertatu, ez norbere fondoekin, ezta hirugarrenen ekarpenen bitartez ere.

3.- Hasierako kreditua: 16.000.000 pta.

1995ean hitzartutako kreditua: 0 pta.

1996ko kreditu-aldaketak:

6 milioi pezeta kendu ziren kontusail horretatik, hurrengoan sartzeko: 71140-7701-7610; izena “Kooperatibaz besteko araubideko industrializazio eta merkaturatze inbertsioetarako dirulaguntzak; lerroa, 97017-2. Ekonomi Zuzendari Nagusiaren abenduaren 16ko 642/1996 Ebazpena.

4.- Espediente kopurua: 1

Eskariaren eguna: 1996-04-22

Onuraduna: “Centro Técnico Nacional de Conservas Vegetales de San Adrián.

Noiz eman zen: 1996-05-13an

Emandako kopurua: 10.000.000 pezeta, inbertsioaren %65,6.

Ordainketaren eguna: 1996-06-10.

5.- Ez da gastu-konpromezurik hurrengo ekitaldietarako.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

## “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoen babesean. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, galderak egin diren hurrenkerari jarraiki:

1.- “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko laguntzak maiatzaren 2ko 178/1991 Foru Dekretuan oinarritu dira. Martxoaren 27ko 79/1995 Foru Dekretuak derogatu zuen aurreko Foru Dekretua.

2.- 1996ko ekitaldian indarrean den aurrekontuan, 165 milioi pezetako dotazioa zuen lerro honek.

Kontusail honek ez du goranzko aldaketarik izan. 1996ko ekainaren 10eko Foru Aginduz 15 milioi pezeta kendu zitzaizkion eta beste Foru Agindu batez 1.032.238 pezeta kendu zitzaizkion lerroari.

3.- 1996ko ekitaldirako 146.079.860 pezetako konpromezua zegoen aurrekontu-lerro horretarako, Azagrako Iberfrutaren alde.

4.- Aurrekontu lerroan azkenean eskura zeuden 148.967.762 pezeta horiekin bi espediente ebatzi dira, Foru Dekretua derogatu aurretik egin baitzen eskaria. Horra:

Azagrako Iberfruta, kopurua: 146.079.860 pta.

Alesbesko I.A.N., kopurua: 2.887.902 pta.

5.- Kontzeptu horren araberako gastu-konpromezurik ez da hurrengo ekitaldietarako.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

## "N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoen babesean. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, galderak egin diren hurrenkerari jarraiki:

1.- Hona "N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak" kontusaila arautzekoak:

– 113/1995 Foru Dekretua, maiatzaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko natur ingurunea babestu eta zaintzeko egokiak diren nekazaritzako produkzio metodoak sustatzeko laguntzak ezartzen dituena.

– 1995eko abenduaren 18ko Foru Agindua, 113/1995 Foru Dekretuan nekazaritza ekologiko eta biologikoa sustatzeari buruz ezarritakoa aplikarazi eta garatzen duena.

– 1995eko abenduaren 18ko Foru Agindua, galtzeko zorian dauden arrazak (behi-aziendan Betizua eta zaldi-aziendan Nafarroako Zaldikoa) ekoizten dituztenendako laguntzen eskabide eta esleipenaren tresnak ezartzen dituena.

– 1996ko urtarrilaren 22ko Foru Agindua, laborantza eta ingurugiro arloko prestakuntza sustatzeari buruz 113/1995 Foru Dekretuak xedatutakoa betearazi eta garatzen duena.

2.- Aurrekontu kontusailean ez dago goranzko aldaketarik.

3.- 1995ean hitzartutako kreditua:.......................... 0 pta.

Hasierako kreditua: ......... 116.000.000 pta.

Kreditu erabilgarria: ......... 24.189.990 pta.

4.- Nekazaritza ekologikoa

| | |
|---|---|
| Partikularren eskariak: | 21 |
| Emandako laguntza, guztira (5 urte): | 16.624.145 pta. |
| 1996an emandako laguntza, guztira: | 3.369.589 pta. |
| Nafarroako Gobernuak ordaindu duen laguntza: | 1.684.795 pta. |
| E.B.k ordaindu duen laguntza: | 1.684.795 pta. |

Laguntza jaso duten azalerak

| | |
|---|---|
| Sekaineko belarkiak: | 354,09 Ha. |
| Ureztalurretako belarkiak: | 45,02 Ha. |
| Barazkiak: | 37,00 Ha. |
| Berotegi eta plastiko azpiko landaketa: | 0,95 Ha. |
| Olibondoak: | 0 Ha. |
| Mahastiak: | 30,7 Ha. |
| Sekaineko frutarbolak: | 0 Ha. |
| Ureztalurretako frutarbolak: | 9,37 Ha. |
| Larreak: | 123,28 Ha. |

Galtzeko zorian dauden arrazak:

| | |
|---|---|
| Partikularren eskariak: | 4 |
| 1996an emandako laguntza: | 3.124.000 pta. |
| Nafarroako Gobernuak ordaindu duen laguntza: | 1.562.200 pta. |
| E.B.k ordaindu duen laguntza: | 1.562.200 pta. |

Laborantza eta Ingurugiro arloko Prestakuntza:

– Aurkeztu diren laborantza eta ingurugiro arloko prestakuntza planak: 1

– Aurkeztu ondoren, plana onartu zaion erakundea - ITG Agrícola

– Planaren egileak eta burutu dutenak- ITGen Prestakuntza Atala

– Bukatzeko eguna: 1996ko abenduaren amaiera

– Foru Aginduaren arabera hitzartutako laguntzen zenbatekoa: 17.696.000 pta.

– 1996/11/30ean onartua - 4.424.000 pta.

– Egiaztatu ondoren ordaintzeke dagoena (estimazioa) - 4.800.000 pta.

– Bekak direla eta 5 ikasleri ordaindu zaiena (Nafarroako Gobernuak %50 eta E.B.k %50) - 74.200 pta.

– 14 ikaslerendako izapidatzen ari diren bekak direla eta ordaintzeke dagoena (Nafarroako Gobernuak %50 eta E.B.k %50) - 228.950 pta.

| | | |
|---|---|---|
| 5.- Nekazaritza biologikoa | 1987: | 3.369.589 pta. |
| | 1988: | 3.295.029 pta. |
| Galzorian dauden arrazak | 1987: | 3.124.400 pta. |
| | 1988: | 3.124.400 pta. |

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

# Lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 23ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentariak lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

Hamar zerrenda erantsi ditut, bertan banakatzen direlarik zuk egindako galderen erantzunak.

Hurrengo 1.997ko ekitaldirako aurreikusten diren jarduketei aurre egiteko, ondorengo kontusail hauek sartu dira aurrekontuan:

– Ureztalurretako obrak: (modernizazioa eta eraldatzea) 1.400.000.000 pzta.

– Sekaineko obrak 5b Programa Operatiboa: 1.250.000.000 pzta.

– Sekaineko lanak: 5b eremutik kanpo 350.000.000 pzta.

– Azterketak eta proiektuak: 5b Programa Operatiboan 135.000.000 pzta.

– Azterketak eta lanak 5b eremutik kanpo: 50.000.000 pzta.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak: Ignacio MartÌnez Alfaro

# Elikagaietarako ez diren laboreei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak elikagaietarako ez diren laboreei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoen babesean. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna. Elikagaietarako ez diren laboreei emandako laguntzei eta Nekazaritzako Politika Amankomunaren eraberritzeari buruz egin diren galderen hurrenkerari jarraiki erantzungo dira:

1.-Hona koltza eta ekilore azaleren eta elikagaietarako ez diren laboreak (no food) landu dituzten nekazarien kopuruaren bilakaera:

| | 1994 urtea | 1995 urtea | 1996 urtea |
|---|---|---|---|
| Koltza | 114 Hak. | 517 Hak. | 185 Hak. |
| Ekilorea | 669 Hak. | 199 Hak. | 340 Hak. |
| Azalera, guztira | 783 Hak. | 716 Hak. | 525 Hak. |
| Zenbat nekazari | 123 | 122 | 104 |

2.- Hainbat ikerketa lerro ireki da 1992tik aitzina eta 1995 eta 1996an garatu dira guztiz; gure nekazaritza eta eguraldi baldintzetan emaitza positiboak izan ditzaketen guztiak abiarazi dira.

"I.T.G. Agricola"ren ikerketa eta saiaketa programen bitartez ari dira lanean arlo horretan. Horien artean azpimarratzekoak dira:

Bio-olioak: Koltza eta ekilore laboreekin burututako ekintzak.

Plastikoak: Olio asko duen ekiloretik oleina atera plastiku-sintesirako.

Bioalkoholak: Neguko zituen almidoitik abiatuta, aprobetxamendu hori hobetu eta errentagarri egiteko barietateak ikertzen ari dira.

Biomasak: Hurrengo laborantzak oinarritzat hartzen dituen programa ari dira zabal garatzen: koltza, brassica carinata, cynara cardunculus, paperetako basartoa, ekilorea, artoa eta kalamua. Uretako jazintoarekin ere saioak egin dira Arguedasko arroz-soroetan.

Zuntzak: Ildo horretatik zuntz-lihoa eta kalamua landu dira. Era berean, hazia eta olioa ekoiztearen aldetik aztertu da lihoa.

3.- Otsailaren 28ko 55/1994 Dekretuarekin bat, 106 laguntza-eskabide jaso dira Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan. Horietatik 101 espedienteri eman zaio laguntza, 6.505.448 pezeta jotzen duelarik.

4.- Arlo honetan abiarazi diren ildo guztiak landa lanak eta esperientziak oinarritzat harturik garatu dira eta garatzen ari dira, bai Nafarroako Gobernuaren ondarearen lursailetan bai partikularrenetan.

Esperientzien munta ezagupenen mailaren araberakoa da: lursail txikia ikerketa lanetarako, saiakuntza esperientzietan handiagoa. Espezie ezberdinek duten nekazaritza eta eguraldi eskakizunen arabera kokatu dira. Hala ere, esan daiteke Nafarroako geografia osoa hartzen dela abiarazi diren edo egun martxan diren ildoak kontuan hartuz gero.

Tokirik aipagarrienak dira:

Beriain, Aratzuri, Urrotz, Itzalle, Irurozki, Imarkoain, Eneritz, Deierri, Garinoain, Tafalla, Erriberri, Tuterako Montes de Cierzo, Arguedas, Valtierra, Tutera.

Beste alde batetik, aipatutako lan asko Europako edo Estatuko zentroekin garatutako ikerketa proiektuen baitan dira. Egun badira lankidetza-ildoak CIEMATekin (Energi, Ingurugiro eta Teknologi Ikerketa Zentroa), Mintegiko Hazi eta Landareren (garai bateko INSPV) dirulaguntzarekin eta INIArekin batera egindako ikerketa proiektuetako ohiko partaidetzak, usainbelar eta sendabelarren arloan edota boilurtegien garapenean.

Ikerketa proiektu berri bat aipatu behar da, alegia, Brassica carinata garatzeari ekitekoa, Europa mailan onartu, koordinatu eta finantzatua, hurrengo partaideekin:

CIEMAT .................................... Madril
ITGA ........................................ Nafarroa
ENEA ....................................... Italia
CRES ....................................... Grezia
KRODA .................................... Britainia Handia
NOVAOL .................................. Italia
Madrilgo Unibertsitate Politek. ... Madril
Kordobako Unibertsitatea .......... Kordoba
KOIPESOL

5.- Dirulaguntzak emateaz denaz bezainbatean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kentzea proposatu du, harrera oso txikia dutelako (N.P.A. sistema orokorreko 4.872 eskarietatik 106 besterik ez), batez besteko dirulaguntza txikia delako (64.000 pezeta espedienteko) eta laguntza ematea zaila delako, hurrengoak aurkeztu behar baitira: eraldatzailearekiko kontratua, uzta-aitorpena, emate-ziurtagiria eta lehengaien eraldatzearen ziurtagiria.

Iruñean, 1996ko abendua

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

**G Saila:**
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

# Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

**Gainditu dutenen zerrenda**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiko Epaimahaiak Erabaki hau hartu du:

**1.-** Deialdiko 7.1 oinarriarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko hautagaien zerrenda, merezimendu baremoan lorturiko puntuazioaren araberakoa, Biltzarreko Mahaira igortzea:

Olga Urmeneta Marín andrea: .......... 5,26 puntu.

Mª Inés Moneo Martínez andrea: ...... 3,85 puntu.

Mª Angeles Adot Loperena andrea: .. 3,58 puntu

**2.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

Epaimahaiko Idazkaria: Martín Mª Razquin Lizarraga

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.800 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 130 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 165 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta, 12, 3

31002 IRUÑEA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa). Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper Ekologiko birziklatua